



E uska l Hez kun tz a
sistemaren An tolamen dua eta
E z augar ri ak

ELISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAMENDUA ETA EZAUGARRIAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

Euskal hezkuntza sistemaren antolamendua eta ezaugarriak. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007

p.; cm.

Port. y texto contrapuesto en castellano: Ordenación y características del sistema educativo vasco

1. Euskadi-Política educativa. I. Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación. II. Título (castellano)

37.014(460.15)

Argitaraldia: 1.a, 2007ko urria

Ale kopurura: 5.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala: Carmen Cobo Musatadi

Fotokonposaketa: mccgraphics

Inprimaketa: mccgraphics

Lege Gordailua: BI-2999-07



Euskal gizarteak, eta, bereziki hezkuntza-komunitateak, luze-zabal eztabaidatu du gure hezkuntza sistemaren beharrezan inguruan eta curriculum propioaren inguruan; gure ikasleek helduak direnean izango dituzten arazoei modu eraginkorrean eta etengabe eguneratzeko gaitasunez aurre egiteko moduan prestatuko dituen euskal curriculumaren inguruan, hain zuzen. Hainbat proposamen izan dira, eta guztiak bateratuz joan dira derrigorrezko eskolaldirako oinarrizko curriculumaren alderdi funtsezkoenak arautzen dituen Dekretuan.

Eskuartearen duzun liburuxka honetan laburbilduta aurkituko dituzu euskal hezkuntza-sistemaren egitura eta haren antolamendua etapaz etapa –arabide berriaren ondorioz sortutakoa–, baita zer ezaugarri nagusi dituen ere.

Marko berriak hainbat ekarpen eskaintzen ditu, hezkuntza zentroetan egiten den lan pedagogikoan oso aintzat hartu beharrekoak: hezkuntza-gaitasun orokorak eta herritar guztiek lortu beharreko oinarrizko gaitasunak; autonomia pedagogikoa eta antolamendu-autonomia hezkuntza- eta gestio-proiektuak lantzeko; hezkuntza-komunitateko eragileen parte hartzea hezkuntzan; hizkuntzen tratamendu egokia gure testuinguru eleanitzaren beharrak gizartearen hizkuntza- eta kultura-errealitatearekin bateratzeko; hezkuntza bateratzailea euskal hezkuntza-sistemaren ardatz gisa, eta abar.

Liburuxka honen bidez, hezkuntza-antolamendu berriaren funtsezko aldaketak eta filosofia modu samurrean ulertzea nahiko nuke. 2007-2008 ikasturtean abiatu dugu antolamendu berri hau, hezkuntzako hainbat eragilek diseinatu ondoren, eta denon artean gauzatuko dugu aurrerantzean.

Tontxu Campos Granados
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua



AURKIBIDEA

Hezkuntzaren Printzipioak	9
Hezkuntza-Sistemaren etapak	11
Haur Hezkuntza	13
Oinarrizko Hezkuntza	15
Lehen Hezkuntza	18
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	20
Batxilergoa	25
Lanbide-Heziketa	27
Ikastetxearen Proiektuak	29
Aplikazio-Egutegia	31



Hezkuntzaren Printzipioak

Oinarrizko Hezkuntzaren antolamendu berriko funtsezko printzipioak hauek dira:

1 Ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza eskaintzeko beharra, hezkuntza-sistemaren maila guztietan, pertsona guztiek eskola-arrakasta lor dezaten.

Hamasei urtera arteko eskolatzea ezarri ondoren, helburua hezkuntza-maila eta emaitza orokorrak hobetzean datza. Horretarako, bateragarri egin nahi dira hezkuntzaren kalitatea eta ikasle guztien inklusioa.

2 Hezkuntza-komunitatearen partaide guztiek helburu horren alde egiteko beharra.

Horretarako, ezinbestekoa da pertsona guztiek baterako ahalegina egitea.

Eskola-arrakastaren erantzukizuna ez dagokio soilik ikasle bakoitzari; horren erantzule baitira, era berean, familiak, irakasleak, ikastetxeak, hezkuntza-administrazioak eta, azken batean, gizarte osoa ere. Azken horrek du, izan ere, hezkuntza-sistemaren kalitatearen erantzukizun nagusia.

3 Europar Batasunak datozen urteetarako proposatutako hezkuntza-helburuekin hartutako konpromisoa.

Europar Batasunak hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea hartu du xedetzat. Horretarako, haietan sartzeko bidea erraztu du guztientzat eta hezkuntzaren zeregina indartu du, ikasleak oinarrizko balio sozial eta zibikoez jabe daitezen. Balio horiek hiritarren eskubideak, berdintasuna, tolerantzia eta errespetua dira, besteak beste.

Hezkuntza-Sistemaren etapak

Hezkuntza-sistema etapa, ziklo, gradu, ikasturte eta mailatan banaturik dago, eta batzuetatik besteetarako loturak ziurtatzen ditu, baita etapa barnekoak ere.

Hezkuntza-sistemak eskaintzen dituen irakaskuntzak hauek dira:


Haur Hezkuntza

Oinarrizko Hezkuntza

- Lehen Hezkuntza.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

- Batxilergoa.
- Lanbide Heziketa.
- Hizkuntzen Irakaskuntzak.
- Arte Irakaskuntzak.
- Kirol Irakaskuntzak.
- Helduen Hezkuntza.
- Unibertsitateko Irakaskuntza.

Hezikuntza-Sistemaren etapak



Printzipio orokorrak

Izaera berezkoa duen hezkuntza-etapa hau 0 urtetik 6ra bitarteko haurrei bideratua da.

Borondatezkoa da eta bi ziklotan banaturik dago: lehena, 3 urtera artekoena, eta bigarrena, 3 urtetik 6ra artekoena.

Hezkuntza-etapa horretako bigarren zikloa doakoa izaten jarraituko du.

Ikastetxeek proposamen pedagogikoa gauzatu beharko dute ziklo bakoitzerako.

Xedea

Neska-mutikoen garapen fisikoa, afektiboa, soziala eta intelektuala garatzen laguntzea.

Arloak

Haur Hezkuntzaren hezkuntza-edukiak arlo hauetan banaturik daude:

- Norbere buruaren ezagutza eta autonomia pertsonala.
- Inguruaren ezagutza.
- Hizkuntzak: komunikazioa eta adieraz-pena.

Haur Hezkuntzaren bigarren zikloan, irakurketarako eta idazketarako lehen hurbilketa sustatuko da, baita oinarritzko zenbaki-trebetasunak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta irudi- nahiz musika-espresioak goiz ikasten hasteko esperientziak ere.

Era berean, eta batez ere azken urtean, atzerriko hizkuntzarako lehen hurbilketa sustatuko da.

Irakasleak

Haur Hezkuntzaren lehen zikloko haurren zuzeneko hezkuntza-arreta Maisu-titulua eta Haur Hezkuntzako espezialitatea, edota Gradu-titulu baliokidea duten profesionalen esku egongo da eta, hala badagokio, adin horretako haurrak zaintzeko behar bezalako titulazioa duten beste langile batzuen esku.

Haur Hezkuntzaren bigarren zikloa Maisu-titulua eta Haur Hezkuntzako espezialitatea, edo Gradu-titulu baliokidea duten irakasleek emango dute eta, eman beharreko irakaskuntzek eskatzen dutenean, beste espezialitate batzuetako irakasleen laguntza izan dezakete.

Guztiak derrigorrez egin beharreko etapa da, eta Lehen Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak osatzen dute.

Xedeak

- a) Ikasleak helduen bizimodurako prestatzea, bizitzan zehar gizabanako gisa joka dezaten, gizarteko partaide aktibo izan daitezen eta naturarekiko eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa har dezaten.
- b) Ikasleak Euskal Herriko eta munduko kulturei buruzko oinarriez jabetzea eta ondorengo ikasketetarako prestatzea, baita lan-munduan behar adinako bermekin sartzeko ere.
- c) Bizitza osoan zehar etengabe ikasten jarraitzeko sentsibilizazioa eta gaitasuna eskaintzea.

Gaitasunak

Esan daiteke gaitasuna dela eskaera konplexuei erantzuteko eta zenbait zeregin behar bezala gauzatzeko ahalmena. Zenbait trebetasun nahasten dira horretan. Izan ere, ahalmen praktikoek, ezagutzek, motibazioak, balio etikoek, jarrerak, emozioek eta bestelako gizarte- eta jokae-ra-osagaiek elkarri loturik jarduten dute ekintza eraginkor bat lortzeko. Gaitasunaren ezaugarri nagusia "egiten jakitea" da, hots, jakintza aplikatzea. Jakintza hori zenbait testuingurutara egokitzeke gai da eta izaera barne-hartzailea du; jarrerak, prozedurak eta jarrerak hartzen baititu barne.

Edukien ikuspegi barne-hartzailea honek aldaketa eragin du; izan ere, zatikaturik ulertu izan dira, sarri, eduki kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak.

Oinarriko Hezkuntzan lortu beharreko hezkuntza-gaitasun orokorrak eta oinarriko gaitasunak finkaturik egoten dira. Hori lortzen laguntzeko ardura dutenak Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza dira.

Hezkuntza-gaitasun orokorrak

Hezkuntza barne-hartzailerako erreferentziazko ardatz nagusiak dira, eta Oinarrizko Hezkuntzaren arlo eta irakasgai guztietan hartzen dira kontuan.

- a) Nork bere kabuz arduratsuki bizitzen ikastea. Nork bere burua ezagutzea, buru-osasuna zaintzea eta ohitura osasungarriak hartzea. Natura eta baliabide naturalak arduratsuki gozaten ikastea, gizateria osoaren eta egungo zein etorkizuneko belaunaldien ondare baitira.
- b) Ikasten eta kritikoki pentsatzen ikastea, eta zenbait iturritako informazioa interpretatzea, sortzea eta ebaluatzea, batez ere komunikabideetako. Erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen ikastea, ikasteko zein lanerako ohiturak hartzea, ikasteko estrategiak sortzea, eta zientzia- eta matematika-ezagutzako metodoak aplikatzea, ezagutzaren eta esperientziaren arloetako arazoak identifikatzeko eta konpontzeko.
- c) Bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean komunikatzen ikastea. Komunikabideak ez ezik informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere kritikoki erabiltzea eta interpretatzea, baita arte-mintzairak ere, hala nola musika, gorputz-adierazpena, plastika eta ikusizko adierazpena.
- d) Elkarrekin bizitzen ikastea; elkarrekintza positiboak izatea eta gatazka-egoeretan elkarriketa eta negoziazioa erabiltzea. Aktiboki eta demokratikoki parte hartzen ikastea, baita lankidetzan jarduten, talde-lanean aritzen eta aniztasuna errespetatzen ere.
- e) Pertsona gisa garatzen ikastea, nork bere nortasuna erakustea, emozio negatiboak kontrolatzea, balorazio positiboa eta errealista egitea, autonomia izatea, hartutako erabakiekiko arduratsua izatea eta printzipio etikoen arabera jokatzeko.
- f) Egiten eta sortzen ikastea, erabakiak eta ardurak hartzeko ekimena izatea, ahalegina eta zailtasunak gainditu izana baloratzea, eta bizitzako zenbait arlotan ekimen ekintzaileak gauzatzea.



Oinarrizko gaitasunak

Oinarrizko gaitasunak testuingurura egokitutako ezagutzek, trebetasunek eta abileziekin, eta jarrekin eta balioekin osatzen dituzte. Gaitasun horiek Oinarrizko Hezkuntza ikasten duten ikasle guztiek behar dituzte, eta ezinbestekoak dira pertsona gisa burutzeko eta garatzeko, eta baita ere hiritar aktiboa gisa jokatzeko eta gizartean parte barne-hartzailea izateko.

- a) Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturaren gaitasuna.
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna.
- c) Gaitasun matematikoa.
- d) Hizkuntza-komunikazioko gaitasuna.
- e) Informazioaren tratamendurako gaitasun eta digital gaitasuna.
- f) Sozial eta hiritar gaitasuna.
- g) Giza kulturaren eta artearen gaitasuna.
- h) Autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasuna.

Oinarrizko gaitasunak curriculumean sartzeak zenbait helburu ditu. Lehen helburua irakaskuntzak bateratzea da, bai formalak, arlo edo irakasgaietakoak, bai informalak eta ez-formalak. Bigarren helburuak aukera eman nahi die ikasleei ikasitakoa beste arlo batzuetan sartzeko, beste eduki mota batzuekin lotzeko, eta zenbait egoera eta testuingurutarako behar dituztenean behar bezala erabiltzeko. Azken helburua irakaskuntzari buruzko orientabidea ematea da, eta ezinbesteko edukiak eta ebaluazio-irizpideak identifikatzeko aukera ematen du. Oro har, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuari buruzko erabakiak bideratzea da helburua.

Printzipio orokorrak

Derrigorrezkoa eta doakoa da. Bi ikasturteko hiru ziklo hartzen ditu barnean. Izaera orokorra eta barne-hartzailea duten hainbat arlotan banaturik dago.

Xedea

Haurren garapen pertsonala eta ongizatea finkatzeko, ahozko adierazpenaren eta ulermenaren, irakurketaren, idazketaren eta kalkuluaren inguruko oinarrizko kultura-trebetasunak eskuratzeko, eta gizarte-trebetasunak, lan-ohiturak eta ikasketa-ohiturak, sen artistikoa, sormena eta afektibitatea garatzeko aukera emango dien hezkuntza ematea.

Arloak

Etaparen horretako ziklo guztietan irakasten diren arloak hauek dira:

- Ingurumenaren, gizartearen eta kulturaren ezagutza.
- Arte-hezkuntza.
- Gorputz-hezkuntza.
- Gaztelania eta literatura.
- Euskara eta literatura.
- Atzerriko hizkuntza.
- Matematika.
- Erljioa (nahi duenarentzat)/Hezkuntza Arreta (beste arloei eta erljiolari loturiko edukirik gabekoa).

Etaparen hirugarren zikloan, ikastetxeek bigarren atzerriko hizkuntza gaineratu ahal izango dute.

Hirugarren zikloko azken ikasturtean, *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza* arloa gaineratuko da.

Arlokako antolamendua etaparen izaera orokorraren kalterik gabe ulertuko da.

Lehen Hezkuntzako maila bakoitzari dagokion ordutegia urteko 875 ordukoa izango da, gutxienez.

Azkenik, Lehen Hezkuntzaren bigarren zikloa amaitzean, diagnostiko-ebaluazioa egingo zaie ikasleei. Ebaluazio hori prestakuntzazkoa eta orientatzailea izango da ikastetxeentzat, familiei informazioa emateko balioko du, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kontuan izango du lortutako informazioa ikasleenganako arreta hobetu eta horiek oinarrizko gaitasunak lortzea bermatzeko.



Sustapena

Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitza amaitzean, irakasleek erabakiko dute ikasle bakoitza mailaz igoko den ala ez.

Ikasleek oinarrizko gaitasunak eta heldutasun-maila egokia lortu badituzte, hurrengo heziketa-ziklora edo etapara igaroko dira, baita gainditu gabeko irakasgaiak dituztenak ere, baldin eta horrek ikasturte berria probetxuz egitea eragozten ez badie.

Ikasle batek oinarrizko gaitasunak lortzen ez dituen kasuan, ziklo berean beste ikasturte bat egin ahal izango du. Neurri hori behin baino ez da hartuko Lehen Hezkuntza osoan, oinarrizko gaitasunak indartzeko edo berreskuratzeko berariazko plan batekin.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaroko dira oinarrizko gaitasunak eta heldutasun-maila egokia lortu badituzte. Gainditu gabeko irakasgaiak izanda DBHra igaroko dira, baldin eta horrek etapa berria probetxuz egitea eragozten ez badie.

Adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleek ezingo dute DBHra igaro, non eta ez duten ordurako zikloetakoren batean urtebete igaro.

Derri gorrezko Bigarren Hezkuntza

Printzipio nagusiak

Derrigorrezkoa eta doakoa da. Lau ikasturte hartzen ditu barne.

Oro har, ikasleek erregimen arruntan egoteko eskubidea dute hemezortzi urte arte.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zenbait irakasgaitan antolaturik dago. Laugarren mailak, ondorengo urteetan egin beharreko ikasketentzat izaera orientatzailea izango du, eta horretarako hautazko irakasgaiak daude.

Irakasgaiak

Irakasgai hauek irakatsiko dira ikasturte guztietan edo batzuetan:

- Euskara eta Literatura.
- Gaztelania eta Literatura.
- Atzerriko Hizkuntza.
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza.
- Matematika.
- Natur Zientziak.
- Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia.
- Gorputz Hezkuntza.
- Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa.
- Musika.
- Teknologiak.
- Informatika.
- Herritertasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza.
- Hezkuntza etiko-zibikoa.
- Biologia eta Geologia.
- Fisika eta Kimika.
- Latina.
- Hautazko irakasgaiak eta errefortzukoak.
- Erlijioa (Erlijioa (nahi duenarentzat)/Hezkuntza Arreta (beste arloei eta erlijioari loturiko edukirik gabekoa).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Laugarren mailan, hautazko zortzi irakasgaitatik hiru hartu beharko dira. Ikastetxeek irakasgai hauek guztiak irakatsi beharko dituzte:

- Biologia eta Geologia.
- Fisika eta Kimika.
- Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa.
- Informatika.
- Latina.
- Musika.
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza.
- Teknologia.

Hirugarren mailan, ikastetxeek Natur Zientzien irakasgaia bitan banatu ahal izango dute: Biologia eta Geologia, eta Fisika eta Kimika.

Laugarren mailan, ikastetxeek eduki desberdineko bi aukeratan antolatu ahal izango dute Matematika irakasgaia.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitzari dagokion gutxieneko ordutegia urteko 1.050 ordukoa da.

Azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bigarren maila amaitzean, diagnostiko-ebaluazioa egingo diete ikasleei. Ebaluazio hori prestakuntzazkoa eta orientatzailea izango da ikastetxeentzat, familiei informazioa emateko balioko du, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kontuan izango du lortutako informazioa ikasleenganako arreta hobetu eta horiek oinarritzko gaitasunak lortzea bermatzeko.

Xedea

Ikasleak kulturaren oinarritzko elementuez jabetzea (alderdi humanistiko, artistiko, zientifiko eta teknologikoei dagokienez, bereziki), haiengan ikasteko eta lanerako ohiturak garatzea eta finkatzea, ondorengo ikasketak egiteko eta lan-munduan sartzeko prestatzea, eta bizitzan herritar gisa dituzten eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko prestatzea.

Irakasleak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasgaiak irakasteko, beharrezkoa izango da lizentziatuaren, ingeniariaren edo arkitektoaren titulua, edota dagokion gradu-titulua, eta baita graduondoko prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa ere.

Sustapena

Ikasturte bakoitza amaitutakoan, irakasleek taldean erabakiko dute ikasle bakoitza mailaz igaroko den ala ez, ebaluazio-prozesuaren bidez.

Ikasleak maila batetik bestera igaroko dira ikasitako irakasgaietan ezarritako helburuetako gaitasunak gainditu badituzte edo gehienez ere bi irakasgaitan ebaluazio negatiboa izan badute, eta ikasturtea errepikatu beharko dute hiru irakasgaitan edo gehiagotan ebaluazio negatiboa izan badute. Kasu horretan, ikasturte osoa errepikatu beharko dute.

Salbuespen gisa, irakasle-taldeak erabaki dezake hiru irakasgaitan ebaluazio negatiboa izan duen ikaslea mailaz igaro daitekeela. Irakasgaietako gaitasun guztiak gainditu gabe mailaz igaro denak errefortzu-programa baten laguntza izango du.

Ikasleak behin bakarrik errepikatu ahal izango du ikasturte bera eta gehienez ere etapa bereko bi ikasturte. Salbuespen gisa, laugarren ikasturtea bigarren aldiz errepikatu ahal izango du, baldin eta etapa horretako beste ikasturterik errepikatu ez badu. Kasu horretan, adinaren muga urtebete luzatu ahal izango da.

Etap horretako irakasgai guztiak gainditzen dituztenek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortuko dute. Era berean, laugarren mailako irakasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboa izan dutenek ere titulu hori lortu ahal izango dute, eta albuespen gisa, baita hiru ebaluazio negatibo izan dituztenek ere, baldin eta irakasleek uste badute irakasgai horiek ez dietela ikasleei etapako oinarritzko gaitasunez eta helburuez jabetzeko oztoporik jarri.

Iraupena

Ikasleek erregimen arruntean eskolaturik egoteko eskubidea dute 18 urte betetzen dituzten urtean amaitzen den ikasturtera arte, betiere ebaluazio-taldeak uste badu, haien jarrerak eta interesak kontuan hartuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortzeko gai direla.

Salbuespen gisa, 21 urtera arte DBHn egoteko baimena emango zaie ohiko ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko geletan eskolatutako ikasleei, eta minusbaliotasun fisikoak edo zentzumenekoak izateagatik hezkuntza-behar bereziak izan eta Hezkuntza Bereziko laguntza espezializatuak jasotzen dituztenei, betiere ebaluazio-taldeak uste badu lanerako gaitasun hobekoak lortzera irits daitezkeela Zereginen Ikaskuntzako berariazko lanbide taldeetan.

Aniztasunaren trataera DBHn

Esku-hartze Orokorreko eta Berariazko Esku-hartzeko Proiektuak

Esku-hartze Orokorreko Proiektuak (E.O.P.) ingurune kaltetuetan kokatutako ikastetxeek ikasle-en beharrei erantzuteko erabiltzen dituztenak dira. Proiektu horiek ikastetxean edo etapan esku-hartze orokorra gauzatzeko planteamendua dute oinarri.

Berariazko Esku-hartze Proiektuak (B.E.P.) hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei bideratuak dira, dela gizarte- edo kultura-ingurune kaltetuetakoak direlako, dela egokitzapen-arazo larriak edo eskola-porrota izan dituztelako.

Curriculum Anitzeko Programak

Ikastetxeek Curriculum Anitzeko Programak eratu ahal izango dituzte ikasle jakinentzat, baldin eta ohartu badira, behar den ebaluazioa egin ondoren, ikasle horiei bideratu beharreko edukiak, jarduera praktikoak eta curriculumeko irakasgaiak, ezarrita daudenak ez bezala antolatu behar direla, eta berariazko metodologiaren beharra dutela etapako helburuak, oinarrizko gaitasunak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua eskuratzeko.

Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera hartu ahal izango dute parte programa horietan, baita bigarren mailatik hirugarren mailara igarotzeko gai ez direnek ere, baldin eta etapako beste ikasturteren bat errepikatu badute.

Curriculum berariazko bi esparrutan antolatuturik egongo da: bata, hezkuntza- eta gizarte-arloko prestakuntza-elementuak dituen, eta bestea, zientziaren eta teknologiaren arloko prestakuntza-elementuak dituen. Gainera, etaparako ezarritako hiru irakasgai ere eman beharko dituzte, aurreko arloetan aipatu direnez gain. Irakasgai horiek talde arrunt batekin ikastea litzateke egokiena.

Programa amaitutakoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortzeko baldintzak betetzen ez dituen ikaslea beste urtebetez egon ahal izango da programan.

Lanbide-Hastapenerako Programak (L.H.P.)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe baimenduek emango dituzte, dela zuzenean, dela erakunde publiko edo pribatuekin zein pertsona fisikoekin akordioak, hitzarmenak edo kontratuak adostuta.

Derri gorrezko Bigarren Hezkuntza

Programa horietan parte hartzeko aukera izango dute 16 urtetik 18ra bitarteko ikasleek –programa hasi den urteko abenduaren 31 baino lehen bete badituzte–, baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortu ez badute.

Salbuespen gisa, adin hori 15 urtera jaitsi ahal izango da, bigarren mailatik hirugarrenera igarotzeko baldintzak bete ez dituztenentzat, baldin eta etapako beste ikasturteren bat errepikaturik badute.

Programa horiek hiru modulu hartzen dituzte barne: berariazko moduluak, prestakuntza-modulu orokorrak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortzera bideratuak.

Lanbide-Hastapenerako Programak HPB-ak dituzten ikasleentzat eta Zereginen Ikaskuntzarako gela

Programa horrek eskaintza berezia hartu beharko du barne, lanpostu bat lortzeko adinako autonomia pertsonal eta soziala izanagatik ere modalitate arruntean sartzen ez diren ikasleen hezkuntza premia bereziei erantzuteko.

Programa horiek gehienez ere 4 ikasturtekoak izango dira; ikasleek gehienez ere 20 urte bete artekoak, normalean. Salbuespen gisa, eskolatzea 21 urte arte luza daiteke.

Eskolatzeko Osagarriko Programak

Programa horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatutako ikasleei bideratuak dira, gehienez ere 15 urte dituztenei –programa hasi den urteko abenduaren 31 baino lehen beteak–, baldin eta hezkuntza-laguntzako behar bereziak badituzte, dela haien baldintza pertsonal larriengatik, dela eskola-historiagatik, betiere aurreikusitako neurri guztiak agortu badira.

Printzipio orokorrak

Borondatezkoa da eta bi ikasturteko iraupena du; normalean 16 urtetik 18ra bitartekoa. Hiru Batxilergo mota egongo dira:

- Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak.
- Zientziak eta Teknologia.
- Arteak.

Arte Batxilergoa beste bi bidetan banatuko da: bata Irudiari, Arte Plastikoei eta Diseinuari loturik, egungoaren antzekoa, eta beste berri bat, Musika, Dantza eta Arte Eszenikoei buruzkoa.

Irakasgaiak

Berritasunen artean, nabarmentzekoa da Batxilergoko irakasgai komunaren artean esparru zientifikoko arlo bat hartu dela kontuan, *Gaur Egungo Mundurako Zientziak*. Horren bidez, gaur egun garrantzia duten gai zientifikoen oinarriak ezagutu ahal izango dira.

Era berean, Batxilergoko bi ikasturteetako batean, eta irakasgai komunaren barruan, beste irakasgai berri bat irakatsiko da: *Filosofia eta Herritartasuna*.

Modalitateetako irakasgai berriei dagokienez, kasu honetan Artekoak, zehazki esateko, Arte eszeniko, musika eta dantzakoak, hauek dira:

- Musika-azterketa I eta II.
- Anatomia aplikatua.
- Arte eszenikoak.
- Ikus-entzunezko kultura.
- Musikaren eta dantzaren historia.
- Musikaren mintzaira eta praktika.
- Literatura.

Printzipio orokorrak

Lanbide Heziketako prestakuntza-ekintzen multzoak lanbideak behar bezala betetzeko trebakuntza eskaintzen du.

Prestakuntza-zikloen multzoa moduluka antolatutik dago. Moduluek iraupen aldagarria dute eta lanbide-arloetara egokitutako eduki teoriko-praktikoak dituzte.

Heziketa-zikloak erdi-mailakoak eta goi-mailakoak izango dira, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalari lotuta egongo dira eta, hurrenez hurren, erdi-mailako lanbide-heziketa eta goi-mailako lanbide-heziketa osatuko dute.

Sartzeko baldintzak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua dutenek egin ahal izango dute Erdi Mailako Lanbide Prestakuntza.

Batxilergo titulua dutenek egin ahal izango dute Goi Mailako Lanbide Prestakuntza.

Lanbide Heziketa egin ahal izango dute, halaber, baldintza akademikoak betetzen ez dituzten, baina Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak araututako sarbide-proba gainditzen dutenek. Bide horretatik Erdi-mailako Heziketa-zikloak egiteko, beharrezkoa izango da gutxienez hamazazpi urte izatea, eta Goi-mailako Heziketa-zikloak egiteko, berriz, gutxienez hemeretzi izatea (proba egiten den urtean beteak), edota hemezortzi, lortu nahi denarekin lotutako Teknikari-titulua bat jaso izana egiaztatzen bada.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua proposamen barne-hartzailea da. Izan ere, kontuan hartzen ditu hezkuntza-aukera ez ezik ikastetxeko hezkuntza-komunitatean esku hartzeko prozesua koherentziaz zuzentzeko erreferentziazkoak diren urrats orientatzaile nagusiak ere.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan sartzen dira jardunerako kontuan hartu beharreko balioak, helburuak eta lehentasunak, ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak erabiltzeko irizpideak, aukera libreko irakasgaien eskaintza, ebaluazio-prozesuaren alderdi nagusiak, tutoretza-ekintza plana eta aniztasuna kontuan hartzeko neurriak.

Ikastetxeek, dagokien autonomiaz baliatuz, esperimentazioak, lanerako planak, eskola-orduak antolatzeko edo zabaltzeko moduak... egin ahal izango dituzte, hezkuntza-administrazioek eza-ritako baldintzetan.

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua ikastetxe bakoitzak hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko alderdiei loturik egiten duen plangintza da, dagokion arloan gauzatzeko. Hizkuntza Proiektuak garatuko ditu Hezkuntza Proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsi eta erabili behar diren zehazteko irizpideak, baita hizkuntzei eman beharreko tratamendua zehaztuko ere Curriculum Proiektuan.

Ikastetxearen Curriculum Proiektua

Ikastetxearen Curriculum Proiektua ikastetxe bakoitzak curriculumeko osagaiak antolatzeko, garatzeko eta dagokion testuinguruaren arabera osatzeko egiten duen planifikazioari deritzo.

Gutxienez, zehaztaperik hauek izango ditu:

- Irakaskuntza-alderdi guztiei dagokienez, irakaskuntzako gaitasunak, helburuak eta edukiak ikasleen beharretara egokitzea.
- Ziklo edo maila bakoitzeko ebaluazio-irizpideak eta etapa bakoitzaren amaieran lortu beharreko gutxienezko gaitasunak zehaztea, baita ebaluatzeko eta maila batetik bestera igarotzeko prozesuari buruzko erabakiak ere.
- Ikastetxearen beraren Hizkuntza Proiektuaren curriculum-alderdiak.

I Kastetxearen Proiektuak

- Ikastetxeko irakasleen jardunak jarraipena eta koherentzia izatea bermatzeko, irizpide pedagogikoak eta didaktikoak zehaztea, baita metodologiari eta curriculum-irakasgaiei buruzko aukerak ere.
- Hezkuntza-laguntzaren berriazko beharra duten ikasleei erabateko tratamendua emateko irizpideak zehaztea, dela hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat, dela gaitasun maila handiko ikasleentzat, edo dela hezkuntza-sisteman berandu sartu direnentzat.
- Curriculumeko aukerei eta aniztasunari buruzko erabakiak.
- Tutoretza-ekintza eta hezkuntza-orientazioa garatzeko irizpideak.

Ziklo eta ikasturteak ezarri ahala osatuko da. Ezarpen-prozesua amaitutakoan, Curriculum Proiektua Hezkuntza Administrazioari aurkeztuko zaio.

Ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan irakasleen klaustroak egin beharko du Curriculum Proiektua. Hura onartzeko zeregina klaustroari berari dagokio ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan.

Ikasturtea	Aplikazioa
2007-08	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasketen antolamendua. Ezarpena: <ul style="list-style-type: none"> • Lehen Hezkuntzako 1. zikloa. • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 3. maila. • LHko eta dagozkion curriculum berrietako titulazioak. • Musika eta Dantza: oinarrizko irakaskuntzak eta irakaskuntza profesioaletako lehen 4 mailak. • Arte Plastikoak eta Diseinua: Erdi-mailako ikasketak • Kirol Irakaskuntzak: titulazio berriak, curriculumeko oinarrizko alderdiak eta ikastetxeetako gutxieneko baldintzak ezartzeri ekingo zaio. • Hizkuntza-eskola ofizialak: Oinarrizko eta Erdi-mailako ikasketak. - DBHko ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulazioa. - Hizkuntza-irakaskuntzen Oinarrizko eta Erdi-mailako ikasketen antolamendua. - LHrako sarbide-proba berriak. - Unibertsitaterako sarbidea, ikasleak EBekoak ez badira edo haien herraldearekin Akordiorik sinaturik ez badago. - Ikasleak onartzeko irizpide berriak.
2008-09	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasketen antolamendua. Ezarpena: <ul style="list-style-type: none"> • Haur Hezkuntza berria. • Lehen Hezkuntzako 2. zikloa. • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailak. • Batxilergoko 1. maila. • Musika eta Dantza: irakaskuntza profesioaletako 5. eta 6. mailak. • Arte Plastiko eta Diseinua: Goi maila • Hizkuntza-eskola ofizialak: Maila Aurreratua. - Diagnosi-ebaluazioak orokortzea Lehen Hezkuntzako 4. mailan (10/11 urte) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan (13/14 urte). - Hizkuntza-irakaskuntzen maila aurreratuen ikasketa-antolamendua. - Helduen Hezkuntzarako proba berriak, DBHko eta Batxilergoko titulua lortzeko. - Lanbide-Hastapenerako Programen lehen maila.
2009-10	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasketen antolamendua. Ezarpena: <ul style="list-style-type: none"> • Lehen Hezkuntzako 3. zikloa. • Batxilergoko 2. maila. - Unibertsitatera sartzeko proba berriak. - Lanbide-Hastapenerako Programen bigarren maila.

